


Eraikuntzaren kostuak % 0,5 igo dira Euskal AEn 2023ko abuztuan

Urtetik urterako balioetan, 2023ko abuztua eta 2022ko abuztua alderatuta, prezioak % 3,8 igo dira

Eustaten datuen arabera, Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,5 igo da Euskal AEn 2023ko abuztuan, aurreko hilaren aldean. 2022ko hil berarekin alderatuta, kostuak % 3,8 igo dira.

Eraikingintzako kostuak % 0,3 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 1,2. 2022ko abuztuarekin alderatuta, Eraikingintzako prezioak % 4,0 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 3,2.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Aurreko hilarekin, hau da, 2023ko uztailarekin alderatuta, **lehengaien** kostuak % 0,6 igo dira; **eskulanaren** kostuak, berriz, konstanteak izan dira. Urtetik urterako balioetan, aldiz, lehengaien kostua % 4,3 igo da, eta eskulanarena % 2,1.

Lehengaien kostua % 0,4 igo da hiletik hiler Erakingintzaren sektorean, eta % 1,6 Obra Zibilean. Urtetik urterako bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuak % 4,5 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 3,5.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	125,3	0,5	3,8
Eraikinak	124,8	0,3	4,0
Obra zibila	127,4	1,2	3,2
Lehengaiak	127,2	0,6	4,3
Eraikinak	126,6	0,4	4,5
Obra zibila	130,0	1,6	3,5
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hila (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Irailaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioek azpisektore hauetan izan dituzte igoerarik handienak 2023ko abuztuan, 2022ko abuztuaren aldean: *Zuraren eta korbxoaren industria* (% 14,0), *Kautxua eta plastikoa* (% 11,4) eta *Mineral ez-metalezkoak* (% 10,4). Aitzitik, sektoreko lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusi hauetan jaitsi dira prezioak: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 20,7ko jaitsiera), *Petrolio finntzea* (% 13,8ko beherakada) eta *Industria kimikoa* (% 6,3ko atzerakada).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Abuztua 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	10,4
Zuraren eta korbxoaren industria	14,0
Petrolio finntzea	-13,8
Industria kimikoa	-6,3
Kautxua eta plastikoa	11,4
Produktu mineral ez-metalezkoak	6,8
Metalgintza	-2,4
Metalezko artikulak	2,0
Material elektronikoa	1,6
Material elektrikoa	3,4
Makineriaren fabrikazioa	5,0
Altzarigintza	6,5
Energia elektrikoa eta gasa	-20,7

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Irailaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62